

5

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIOA

BANAKETA ETA SALMENTA

Altzari denda fisikoen bitartez salduko da gure produktua. Hori dela eta, gure produktua denda hauetara helarazteko, garraio enpresa bat kontratatuko dugu. Hauek gure zaborontzia denda fisikotara eramango dute, denda hauek gure produktua beti stockean izateko.

KOMUNIKAZIOA: PUBLIZITATEA

Alde batetik, altzari denda fisiko gehienek katalogo bat dute beraiek eskaintzen dituzten produktuak erakusteko. Hori dela eta, publizitate moduan funtzionatu dezake guretzat. Horregatik, inbertsio ekonomiko bat egin daiteke katalogoaren hasierako orrietako batean agertzeko, eta/edo orrian bertan tamaina handia izateko, bezeroarengan arreta deituz, eta erosle potentzialak bilatzeko.

Bestalde, gure xede-publikoaren zati bat familiak direnez, telebistako “spot” edo iragarki bat produzitu genezake, eguerdian edo arratsaldean emititzeko. Horretarako, estudio batekin kontaktuan jarriko gara iragarkia produzitzeko.

